

Eusko Legebiltzarra: 45 urteko ibilbidea, parlamentua eta autogobernua eraikiz



Zeintzuk dira XXI. mendeko parlamentuen erronka nagusiak? Nolako eragina dute erronka horiek ganbera parlamentarioen eginkizunetan eta funtzionamenduan? Zein neurri eta jardunbide egoki garatzen ari dira erronka horiei aurre egiteko?

Ira. 11 - Ira. 12 2025

Kod. D14-25

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 11 - Ira. 12 2025

Kokalekua

Carlos Santamaría Zentroa

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Azalpena

Eusko Legebiltzarraren 45. urtemugaren harira, Uda Ikastaro honek gogoeta eta eztabaidarako espazioa eskaini nahi du, 50. urtemugarako bidea prestatuz. XXI. mendea trantsizio aroa izaten ari da, eta erronka berriak eta konplexuak planteatzen dizkie demokrazia sistemei. Testuinguru horretan, parlamentuek beren eginkizun eta funtzionamenduari buruzko berrikuspenei aurre egin behar diete, egungo erronkei erantzuteko.

Ikastaroak galdera nagusi hauei erantzuna bilatzen lagundu nahi du: Zeintzuk dira XXI. mendeko parlamentuen erronka nagusiak? Nolako eragina dute erronka horiek ganbera parlamentarioen eginkizunetan eta funtzionamenduan? Zein neurri eta jardunbide egoki garatzen ari dira erronka horiei aurre egiteko?

Helburuak

Euskal Herriko eta Europako parlamentuak XXI. mendeko erronken aurrean jarri, haien erronken agenda aztertu, eta jardunbide egokiak partekatzeko solasgunea eskaintzea.

Jardunbide egokiak ezagutzea eta partekatzea.

Gogoetarako eta eztabaidarako gunea eskaintzea.

Antolakuntza



Zuzendaritza



Zelai Nikolas Ezkurdia

Eusko Legebiltzarra

Zuzenbidean lizentziatu zen 1992an, Deustuko Unibertsitatean. Bere abokatu jarduera urte hartan hasi eta 1997-2018 bitartean Eusko Jaurlaritzan, aholkulari juridiko lanak egin zituen. Gaur egun Eusko Legebiltzarreko legelaria da zerbitzu-eginkizunetan. Eraikuntza zuzenbideko Gradu ondokoa egin zuen 1993an Deustuko Unibertsitatean. Ondoren, 2010ean, Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU), Europar Batasunaren integrazio politiko eta batasun ekonomikoari buruzko masterra burutu zuen, Europako estaturik gabeko nazioen biziraupena eta Europako eskualde politika izeneko tesina idatziz. Horretaz gain, irakaskuntza jarduerak eta jarduera zientifikoak egin ditu EHUn eta zenbait herri ekimenetan parte hartu du.

Kokalekua

Carlos Santamaría Zentroa

Elhuyar plaza 2, 20018 - Donostia

Gipuzkoa